


Gabonetako igeriketa sarian, 200 igerilarik hartuko dute parte bihar Hernanin

■ Hernaniko Klubeko 30 bat igerilari izango dira ■ Bost modalitate eta bost kategoria daude, emakumezkoetan eta gizonezkoetan ■ 100dik gora medaila banatuko dituzte ■ Proba 09:30etan hasiko da.

BIHAR jokatu da 8garren Gabonetako Igeriketa Saria, Hernanin. Gipuzkoa guztiko 200 igerilari etorriko dira probara eta 4 kategoria desberdinetan hartuko dute parte: infantilak, kadeteak, juniorrak eta seniorrak. Guztira 5 modalitate dira: 100 metro tximeleta, 100 metro bizkar, 100 metro bular, 100 metro libre eta 100 metro lau estiloak. Igerilari bakoitzak 2 estilotan hartu beharko du parte, 100 metro lau estilotan eta berak aukeratzen duen beste batean.

Ehundik gora medaila

Modalitate eta kategoria bakoitzeko 3 onenek izango dute domina, nesketan eta mutiletan. Irabazle absolutoak bi izango dira hala ere: denborarik onenak egin duen neska eta denborarik onena egin duen mutila. Gerra pixka bat eman beharko luketen hernaniarrak 3 dira: Andrea Izagirre seniorra, Peru Alfaro juniorra eta Mañel Aizpurua kadetea. Amaia Amundarain, Igarondo taldekoa, eta Mikel Novella, Easokoa, izan ziren iazko irabazleak.



Igerilariak saltatzeko pronto, iazko gabonetako sariketan.

Probak goizeko 09:30etan hasiko dira eta eguerdiko 13:30ak arte iraungo dute, gutxi gora behera. Jon Murua Hernaniko entrenatzailearen hitzetan proba honen helburu garrantzitsuenak dira igerilariak herritarren aurrean igeri egiteko aukera

izatea, eta beste klubetako jendeari zerbait eskeintzea.

Sari garrantzitsua Donostian Hernanikoaz gain Donostian ere bada sariketa garrantzitsua bihar: Gabonetako Sari Internazionala. Maila handiko igerilariak neurtuko

dute alkar, eta Hernaniko taldeko 3 igerilari ere bertan izango dira. Olatz Altunak aukera handiak ditu finalera sartzeko; Oihane Sanz eta Iara Jimenezek ere paper polita bete lezakete. Goizean klasifikatoriak izango dira eta arratsaldean finalak. □

'Zero Sette' akordeoi taldeak kontzertua emango du bihar Jubilatutxan

■ 18 akordeoi jolek osatzen dute 'Zero Sette' taldea ■ Kontzertua arratsaldeko 18:00etan izango da.

ZEROSETTE akordeoi talde lasartearrak kontzertua emango du bihar arratsaldean Jubilatutxan, Goiz Eguzkin. Zero Sette 1987an sortutako taldea da eta orduetik kontzertu asko emana.

Zuzendaria Elias Goikouria da 1990a ezkerro.

Talde arrakastatsua

Zero Sette taldeak nahikoa fama lortu du. Akordeoi lehiaketetan sari dezente lortu

dituzte hamabost urtetako ibilbidean; aurtan, adibidez, Lehen saria lortu dute Torrelabegako Nazioarteko sarian. Autore askoren obrak jotzen dituzte eta biharko kontzerturako ere eskaintza

zabala izango dute Hernanin. Kontzertu hauek Udala Musika eskolak eta Jubilatutxan antolatzen dituzte eta azken aldiko ekitaldietan lepo bete da Jubilatutxan aretoa. □

BERTSOLATA

Unai Iturriaga eta Sustrai Colina prehistoriara joango dira gaur

BERTSO afaria dago gaur Arri-goain jatetxean, Bertso Lataren barruan. Unai Iturriaga eta Sustrai Colinak bertso afari prehistorikoa egingo dute Josu Goikoe-txeak gidatuta. Afari txartelak Kitto, Oindi, Aralar, Garin eta Irrintzi tabernetan eta Arrigo-ainen bertan daude gaur eguerdi arte, 15 eurotan. □

PLATER TIRATZEA

San Silvestre tiraldia bihar Santa Barbaran

TXANTXANGORRI elkarteak San Silvestre tiraldia egingo du bihar Santa Barbaran. Minifoso modalidadean izango da, naranja koloreko 15 plater botata. Bi kategori egongo dira: batean, 2garrena, 3garrena eta federatiboa; eta bestean, 4garrena eta hasierakoa. Inskripzioa goizeko 10:30etan zabalduko da eta 11:30etan itxi. Izen ematea 6 euro kostako da. Tiraldian taberna egongo da eta behar dituenarentzat kartutxoak salgai ere bai.

Gotzon Aranburuk tratatu txarrak jasan dituela salatu du Askatasunak

GOTZON Aranburu egurtu egin zuten abenduaren 24an, bai ospitalean eta baita Soto del Real espetxean ere, Askatasuna erakundeak salatu duenez. Aranburu hilaren 17an atxilotu zuen Guardia Zibilak tirote batean larri zauritu ondoren. Aranburuk amarekin hitz egiteko aukera izan zuen Soto del Real espetxean eta amak berak dionez hitz hauek esan zizkion: "lasai ama berotu naute baina zaurietan ez didate eman". Askatasunak salatu du horrelako gertaerak behin baino gehiagotan gertatzen direla eta kasu honetan, Guardia Zibila eta Polizia Nazionalak behin baino gehiagotan interrogatu dutela Aranburu ospitalean zegoen bitartean. □



emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena

JENDAUURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

"Taldeen partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko".

Emakumeei zuzendua

Urtarrila eta otsailan: Asteartetan
Bi ordutegi: 14:30 - 16:30
19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: Urtarrilaren 3a

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
"Berdintasun Kontseiluaren Logoa"

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.: 943 55 78 54



HORBEL jatetxea
Urtarrilaren lehen zabalik!
goizean goizetik

Zatoz, urteberri egunean

Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

Kardaberaz 7
943 55 34 65

Ilargi
Moda eta konplementuak

Paristik ekarritako arropa.
Bitxiak, osagarriak, apainagarriak, ...

ILARGI gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi.

ADARRA

ETXE TRESNAK S.A.

Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



Arrasaten sariak lortutako zenbait musikari hernaniar, beren medaila eta guzti.

Hernaniarrak sariz lepo Arrasateko Akordeoi Lehiaketatik

ABENDUAREN 4tik 8ra 'Arrasateko Akordeoi Lehiaketa 2002' jokatu da. Hernaniko musikari gazte askok parte hartu du eta sari mordoska ekarri dute gainera. Hamaika urte artekoetan 21 sari lortu dituzte hernaniarrek eta 13 urte artekoetan 16 sari. □

11 URTE ARTE *Hastapena*. Urrezko domina: Vinaixa Garcia, Nagore Lopez eta Janire Urrestarazu. Zilarrezko domina: Leire Aldaregia, Ane Apezetxea, Ana Herrero, Ana Mendiluze, Alaine Sarriegi eta Beñat Zinkunegi. *A Maila*. Urrezko Domina: Ane Aierbe eta Itxaso Piquer. Zilarrezko Domina: Oihane Erize, Maddi Iradi eta M^a Victoria Irazola. *Ganbara Musika*: Urrezko domina: Ane Aierbe, Ane Apezetxea, Oihane Erize eta Maddi Iradi. Zilarra: Edurne Garcia, Itxaso Piquer, eta Jaione Urrestarazu. **13 URTE ARTE** *Hastapena*: Urrezko domina: Iratxe Etxeberria. *B Maila*: Leire Mendiluze eta Maddi Ruiz. *Ganbara Musika*: Leire Aiape, Nerea Duroudier, Janire Garin, Garazi Jauregi eta Leire Mendiluze. Zilarrezkoa: Mikele Bustillo, Gabirel Garcia, Iratxe Etxeberria, Hiart Navarro, Lide Redondo, Maddi Ruiz, Irati Sarasua eta Amaia Valero.

'Kaxko' elkarteak eskerrak eman dizkie Kardaberaz kaleko inaugurazioan laguntzen ibilitakoei

'KAXKO' Alde Zaharreko elkarteak eskerrak eman dizkie Kardaberaz kaleko inaugurazio festan laguntzen ibilitako bizilagun, komertzio eta tabernei. Kronikara bidalitako prentsa ohar batean diote guztien lana izan dela beharrezkoa festa aurrera ateratzeko, eta bereziki harategiena. Ho-

rez gain Adarraga pasteleria eta Udaletxearen laguntza ere azpimarratu du Kaxkok.

Ontziak Masustan Kardaberaz kaleko festara jendeak ontziak eta bestelako trasteak etxeetatik jeitxi zituen. Oraindik jasotzeko dauzkanak Masusta dendan izango

ditu Kardaberaz kalean bertan. Bestalde, Kaxko elkarteak bilera egitekoa du urtea hasi eta berehala. Hitz egingo dituzten gaien artean daude Alde Zaharreko berritze lanen hiru-garren fasea, 2003rako proiektu berriak eta Andre Kalea eta Kale Nagusiak festak batera egiteko aukera. □

Kronikako kalendariora salgai

'Hernani 2003'

HERNANI 2003			
URTARRILA	OTSARIA	MARTXOA	APIRILA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
MAIATZA	EKERRA	UZTARIA	ABUZTUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
IRAILA	URRUA	ABERRIA	ABUZTUA
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Zure kioskoan

2 eurotan

HITZ BITAN



Joxan eta Hanfry Landaribar eskaparate aurrean.

✓ ESKAPARATE LEHIAKETA

'Andre Kale 35'ek 3garren saria lortu du. Andre Kale 35ek 3garren saria lortu du Gipuzkoa mailako eskaparate lehiaketan. Eskaparatea ordulari kajak erabiliaz egin dute Andre Kale 35ekoek eta Fernando Iriarte interioristaren laguntza izan dute. Dendako jabeen hitzetan dendaririk gehienek saldu beharreko produktuak jartzen dituzte eskaparatean, baina, beraiek sujeritu egiten dute erakutsi baino.

✓ SANDIUSTERRI

Puntu txapelketa gaur. Gabonetako ekintzen barruan puntu txapelketa dute gaur Sandiusterrin. Bihar diapositiba emaldia dute, Iurramendi erresidentziarako irteerakoak eta 3garren adinaren astekoak. Bi ekintzak arratsaldeko 17:30etan dira.

✓ MAHAI TENISA

Jubenil mailako Euskadiko txapelketa gaur. Euskadiko txapelketak jokatzen ari dira Hernaniko kiroldegian. Gaur jubenilek jokatuko dituzte partidak, 10:00etan eta 16:00etan hasita.

✓ KIROLDEGIA

Bihar goizean igerilekua itxita. Igeriketa probak direla eta, igerilekua itxita egongo da bihar goizean. Arratsaldean ordutegi normala izango du. □

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskaldun bat behar dugu, haurrak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu: **943 330308**

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☛ Taxiak: 943 550093
- ☛ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☛ DYA: 943 464622
- ☛ Autobusak: 943 556662
- ☛ Anbulatorioa: 943 006666
- ☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☛ Egunez: Bilbao-Sagastiberrri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ☛ Gaez: Urbistondo Lasarte. San Francisco 1B ☎ 943 366567

ESKERTZA

Jose Joakin Mendiluze Lekunberri
"Josetxo"

Andrea, seme-alaba, iloba eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zereteno eta hiletara etorri zineten guztiok. GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO Hernanin 2002ko apirilaren 28an.

BIKAIN

OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti Bikain...



Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI



AMAIA

ARRANTZAK

ITSASKIAK

FRESKO ETA IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI

Arrigoa i-jatetxea

Gabonak ondo pasa eta urteberri on, ahaztu gabe bere gogoz kontra gure artean ez daudenak.

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

- * ASISTENTZIA TEKNIKOA, GAS ETA BEROGINTZAN.
- * GAS PROPANO, BUTANO ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4